



ALBOAN

Zero Pobrezia. Helburu bat baino, garapen eskubide bat



Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko 9 koaderno osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (komikiak, posterrak, ikerketak...), eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

■ Hezkuntza baliabideak ALBOAN

- o. Milurtekoko Garapen Helburuak:
Aldaketarako tresna edo garapen gaingabetua? (2007)
- 1. Zero Pobrezia.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)

**Zero Pobrezia.
Helburu bat baino,
garapen eskubide bat**



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxe: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxe: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda Kalea 7, 4. Ezk • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxe: 943 320 267
alboangi@alboan.org
www.alboan.org

Egilea: Equipo Maíz, Red Jubileo Perú, Bernard Lestienne eta ALBOAN

Data: Iraila 2007

Itzulpena: Elhuyar

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-2462-07

ISBN: 978-84-611-8352-4

Lan honen erreproduzio partziala baimentzen da, beti ere
helburu komertzialik ez badu eta iturburu aipatzen baldin bada.

Aurkibidea

Zero Pobrezia.	
Helburu bat baino, garapen eskubide bat	5
EQUIPO MAÍZ	
I. Zer da pobrezia?	5
II. Pobrezia munduan	6
III. Pobrezia eragiten duten arrazoiei buruzko mitoak	7
IV. Pobreziaren benetako arrazoiak	8
V. Pobreziari aurre egiteko milurtekoko konpromisoak	13
VI. Gorantz doa pobrezia	13
Eztabaidarako eta ekintzarako galderak edo eztabaidagaiak	16
Testigantzak	
Peruko jubileu sarea	17
Jubileu Kanpaina Brasilen. BERNARD LESTIENNE sj	23
Glosarioa	29



ZERO POBREZIA.

HELBURU BAT BAINO, GARAPEN ESKUBIDE BAT

*Equipo Maíz**

I. ZER DA POBREZIA?

Hileroko diru-sarrerekin bizitzeko beharrezkoak diren oinarrizko ondasun eta zerbitzuak –esaterako elikagaiak, etxebizitza, jantziak eta osasun-zerbitzuak, ura, hezkuntza, garraioa eta bestelakoak– lortzeko pertsona batek duen ezgaitasunak zehazten du pobrezia¹.

Balio monetarioa du saski osoak; elikagaiek erdia osatzen dute hiriguneetan, eta %57 landa-ingurunean². Elikagaien zatia ez da berbera herrialde guztietan, kontsumo-ohiturak ezberdinak baitira.

Dituzten diru-sarrerekin elikagaien, zerbitzuen, etxebizitzaren eta jantzien saskia bete dezaketen pertsonak hartzen dira ez-pobretzat. Eta aipatutako saskia kontsumitu ezin duten pertsonak hartzen dira pobretzat. Halaber, bitan banatzen da pobrezia:

1. Erabatekoa edo muturrekoa (edo txirotasuna deitzen dena) da dituzten diru-sarrerekin oinarrizko elikagaiak ere kontsumitu ezin dituzten pertsonena. Egunean dolar batekin baino gutxiagorekin bizi dira pertsona horiek.



* Equipo Maíz 1983. urteaz geroztik San Salvadorren, El Salvador, hezkuntza herrikoia lantzen duen emakume eta gizon taldea da. Beraien eginkizun nagusiak trebakuntzak eskaintzea eta argitalpen desberdinak egitea dira. (www.equipomaiz.org.sv)

¹ CEPAL, *Panorama Social de América Latina 2002-2003*.

² CEPAL, *Ibidem*.


2. Erlatiboa da elikagaiak kontsumitu arren saskiko beste zatiak (zerbitzuak, etxebizitza edo jantziak) ordaindu ezin dituztenena. Egunean bi dolarrekin baino gutxiagorekin bizi dira pertsona horiek.

Pobrezia neurtzeko moduak mugak ditu, ez baititu barne hartzen kultura-beharrak, aisia, kirola, pertsonen segurtasun fisiko eta juridikoa eta bestelako alderdiak. Hala ere, behar materialak asetzeko herritarrek dituzten aukerei buruzko ideia baliagarria eskaintzen du.

II. POBREZIA MUNDUAN

Gaur egun, 3.315 milioi pertsona pobre inguru dago munduan (populazio osoaren %51). Pertsona horien gehiengoak Afrika, Asia eta Latinoamerikako herrietan bizi da. Ekialdeko Asian, biztanleen %43,2 pobrezian dago; Hego-ekialdeko Asian, %47,8; eta Hegoaldeko Asian, %75,7. Munduko lurralderik pobrenean, Saharaz hegoaldeko Afrikan, %76,4 pobrezian bizi da³.

Pobrezian dauden pertsonen artean, 1.300 milioi txiroak dira, hau da, eguneko dolar batekin baino gutxiagorekin bizi dira⁴. Munduko 20 herrialderik pobreenak afrikarrak dira⁵.



Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundeak (FAO) elikagaien segurtasunik ezaz egindako azken urteko txostenaren arabera, munduan 852 milioi pertsona bizi dira goseak. 815 milioi herrialde azpigaratuetan bizi dira; 28 milioi, garabidean dauden herrialdeetan; eta 9 milioi, herrialde garatuetan. Bost milioi ume inguru goseak hiltzen da urtero⁶.

Munduko pobrezia oso larria dela erakusten dute datu horiek. Emakumeak eta adingabeak dira kaltetuenak. Munduko biztanle langile pobre guztietatik, %60

³ www.summitamericas.org/II_concurso/docs/Ensayo%20OEA%20Daniel%20Abreu%20Rep.%20Dominicana.doc.

⁴ Perspektivas Económicas, Estatu Batuetako Estatu Departamenduaren egunkari elektronikoa: <http://usinfo.state.gov/journals/ites/0901/ijes/ijes0901.htm>

⁵ http://hebdomario.typepad.com/confidencial_7d/2005/08/los_20_paises_m.html

⁶ Frantziako Prentsa Agentzia (AFP), *Ibidem*.

emakumezkoak dira, eta gizonezkoen soldatak baino %34 txikiagoak jasotzen dituzte⁷. Erabateko pobrezian dauden 10 pertsonatetik, zazpi emakumeak dira. Munduko pertsona pobre guztien erdiak haurrak dira⁸.

2000. urtean 207 milioi izatetik 2005ean 213 milioi izatera pasatu zen pertsona pobreen kopurua Latinoamerikan⁹. Hauexek dira pobrezia-indize handienak dituzten herrialdeak: Haiti (herritarren %80), Honduras (%77), Nikaragua (%69), Bolivia (%62), Paraguai (%61), Guatemala (%60) eta Kolonbia (%51).


Latinoamerikan gosez bizi diren 53 milioi pertsonetatik, 33 miloi Hego Amerikan bizi dira, ia 7 milioi Kariben eta 13 milioi Erdialdeko Amerikan eta Mexikon¹⁰. Erlatiboki, Erdialdeko Amerikan besteetan baino handiagoa da pobrezia.

III. POBREZIA ERAGITEN DUTEN ARRAZOIEI BURUZKO MITOAK

Bi arrazoik eragiten dute pobrezia, nazioarteko erakunde gehienek arabera, besteak beste, Munduko Bankuaren (MB) eta Nazioarteko Diru Funtzaren (NMF) arabera:

1. Ondasunen eta zerbitzuen ekoizpen urria jende pobre gehien bizi den herrialdeetan. Hori dela eta, erakunde horiek iradokitzen dute gobernuek neurriak har ditzatela ekoizpena handiagoa izan dadin, hau da, Barne Produktu Gordina (BPG) haz dadin.
2. Munduko gainerako herrialdeekiko komertzioaren garapen urria. Erakundeek aholkatzen dute herrialde pobreek bereziki esportatzeko (hau da, munduko gainerako tokietan saltzeko) ekoiztea, jende gehiago bizi baita handik kanpo eta aberastasuna handitu baitezake horrek. Horri esker, gehiago inporta daiteke, hots, munduan gehiago eros daiteke, eta, modu horretan, ekoizten ez dituen ondasunak eros ditzake herri batek.

Lehenengo azalpena faltsua da. Afrikan, munduko kontinenterik pobrenean, gertatzen denak, adibidez, ezeztatu



⁷ UNCTAD, *Nazio Batuen Ekonomia, Merkataritza eta Garapenerako Batzarraren Txostena*. Argenpress, 2004.

⁸ Diners aldizkaria. www.dinersclub.com.ec

⁹ CEPAL, *Panorama Social de América Latina*, 2004-2005.

¹⁰ Frantziako Prentsa Agentzia (AFP), *Ibidem*.

egiten du hazkunde ekonomikoaren eta pobrezia murriztearen arteko erlazioa. Ikus dezagun:

“1990eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, munduko hazkunde-tasaren batezbestekoa baino handiagoa izan dute Afrikako ekonomiek. Munduko Bankuaren arabera, 1996-2002 eperako hazkunde-tasaren batez bestekoa %3,6koa izan zen Afrikan, eta %2,7koa munduan. 2004an, %5,1ekoa izan zen Afrikako hazkundearen batezbestekoa, azken zortzi urteetako azkarrena. Aurreikuspenen arabera, 2006an hazkunde-tasa %5,2koa izango da¹¹.”

Hazkunde ekonomikoa hori izanda ere, azken 20 urteotan pobrezia murriztu ez den bi tokietako bat da Afrika. Nazio Batuen Ekonomia Batzordeak argitaratzeke duen *Afrikari buruzko 2005eko txosten ekonomikoak* adierazten duen moduan, 1980 eta 2003 bitartean, Afrikako pobreen kopurua %45etik %46ra igo zen¹².

Bigarren baieztapena ere ez da zuzena. Herrialde garatuetan, pobrezia gutxiago dago eta ez dira kanpo-merkataritzan oinarritzen, baizik eta barne-merkataritzan. Ekoizpen osoaren %6-10 inguru saltzen dute munduan. Erdialdeko Amerikako eta Afrikako herrialdeek, ordea, pobrezia handia dute, eta ekoizpenaren %20 esportatzen dute¹³.

“Petrolio-esportazioen areagotzeak eta hidrokarburoen prezio altuek bizkortu dute Afrikako hazkunde berria” Nkurunziza Janvier jaunaren arabera. Horrek esan nahi du esportazioak handituz igo zutela ekoizpena herrialde afrikarrek. Hala ere, herrialde horietan gora doa pobrezia.

IV. POBREZIAREN BENETAKO ARRAZOIAK

Diru-sarrerak eta aberastasuna populazioaren gutxiengo batean metatzea, gehientzat kaltegarriak diren politika ekonomikoak eta nazioarteko erlazio ekonomiko bidegabeak dira munduko pobrezia eragile nagusiak. Lanik ezak, lan-baldintza eskasek, gobernuen inbertsio sozial urriak eta ingurunearen etengabeko hondeatzeak ere eragina dute.

¹¹ D. NKURUNZIZA JANVIER, *El crecimiento “correcto” para África*, Project Syndicate, 2005. www.project-syndicate.org Traducción de Kena Nequiz.

¹² NNUU. Consejo Económico y Social: Informe económico sobre África 2006. *Tendencias económicas recientes en África y perspectivas para 2006*, E/2006/17. www.un.org/spanish/documents/esc/document.htm

¹³ Herrialde bakoitzeko banku zentraletatik jasotako datua.

a. Diru-sarreraren metatzea

Diru-sarrerak eta baliabideak populazioaren gutxiengo batean metatzea da pobrezia eragile nagusia. Gutxi batzuek aberastasun handia duten bitartean, gizaki gehienek ez dute baliabiderik beren beharrak asetzeko. Datu bakar bat nahikoa da baieztapen hori egiaztatzeko: munduko populazioaren %6k diru-sarreraren %59 dute, eta gainerako %94ak beste %41a¹⁴.



Lan egiten duen jendea ere ez dago pobreziatik salbu; izan ere, soldatak baxuak dira eta enpresen irabaziak altuegiak dira.

Mundu osoan, lan egiten duten 1.400 milioi pertsonak bi euro baino gutxiago jasotzen dute eguneko, Nazioarteko Lan Erakundeak (NLE) 2004-2005 aldiari dago-kion Munduko Enpleguari buruzko Txostenean esan zuenaren arabera. Kopuru horiek erakusten dute enplegu-iturriak sortzeak ez duela automatikoki pobrezia murrizten, aberastasuna metatzearen arazoari aurre egiten ez bazaio.

Ikus dezagun arazo horri buruzko informazio hau¹⁵.

“Eskandaluzko zifrak daude. Zaplazteko gogorrak aurpegi erdian. Forbes aldizka-riak urtero egiten duen Estatu Batuetako 400 pertsona aberatsenen zerrenda da horietako bat. Bilioi bat dolar baino gehiagoko dirutza batzen dute, MERCOSUR izenekoan dauden lau herrialdeen BPGak (Argentina, Brasil, Paraguai eta Uruguai) batuta beste.

Zerrendako lehen 10 postuetan dauden enpresaburuen dirutza, 227.000 milioi dolar inguru, nahikoa litzateke Latinoamerikak duen zor larriaren heren bat –da-goeneko 789.400 milioi dolar– behin betiko kitatzeko.

Microsoften jabe Bill Gates famatuaren ondasuna 48 mila milioikoa da dagoeneko. Munduko populazioaren pobrezia-maila altuak 2015ean erdira murrizteko urtero behar diren 50 mila milioietatik oso hurbil dago zifra hori.

¹⁴ www.altillo.com/articulos/100personas.asp

¹⁵ SUSANA PEZZANO, *Una riqueza escandalosa*. Periódico La Insignia, Venezuela, 2004.



225 milioi pertsonak ekoizten duten beste pilatzen dute lauhun pertsonak. Estatu Batuetako zerrendako lehenengo hamarrek beren dirutza emango balute, kontinente oso batek pairatzen duen zorraren drama arinduko lukete. Eguneko dolar batekin baino gutxiagorekin bizirauten duten 1.200 milioi pertsonaren tragedia eta edateko urik, etxebizitza duinik eta gutxieneko hezkuntza-mailarik ez duten milaka milioi pertsonaren pairamenak ezereztuko lirateke gizaki bakar batek duen dirutzarekin.”

Latinoamerikan, aberastasuna txartoen banatuta dagoen munduko eremuan, herritar aberatsenen %10ek sarreren %36 eskuratzen dute; eta pobreenen %40k, %13,6¹⁶. Lehen aipatutako FAOren dokumentuaren arabera, “gosearen arazoa murrizteko Latinoamerikak duen arazorik larriena ezberdintasunean datza”.

Gauza bera gertatzen da Afrikan. Diru-sarreren kontzentrazioaren zerrendan, bigarren lekuan dago kontinente hori. Hori dela eta, “nagusiki aberatsei egin die on azken hamar urteetan sortu zen aberastasunak¹⁷”.

Munduko aberastasuna gutxiengo aberats baten esku egongo ez balitz, ez litzateke pobreziarik egongo. Egun, munduko nekazaritza-ekoizpenaren %30 nahikoa litzateke goseari aurre egiteko¹⁸. Baina, ekoizpen horren zatirik handiena gutxiengo dirudun batek kontsumitzen duenez, milioika pertsona pobre daude.

b. Politika ekonomikoa

Azken 30 urteotan, aberastasuna biltzen duten eta gobernuak ahultzen dituzten programa ekonomikoak aplikatu dira herri gehienetan. “Doikuntza estrukturaleko programa” horien helburua da enpresak pribatizatzea, enpresaburuei beren ondasunen eta zerbitzuen prezioak zehazten uztea, aberatsei zergak kentzea eta pobreei zergak jartzea.

¹⁶ CEPAL, *Panorama Social de América Latina 2002-2003*.

¹⁷ NKURUNZIZA JANVIER, *Ibidem*.

¹⁸ *Globalización y transnacionales amenazan la soberanía alimentaria AFP, 2004*.

Neurri horien ondorioz, enpresaburu handien irabaziak hazi egin dira, izan ere, enpresa publikoak eskuratu (pribatizatu) dituzte, saltzeko prezioak erabakitzen dituzte eta zerga gutxiago ordaintzen dituzte. Aberastasuna kontzentratuago dago, eta jendearen erosteko ahalmena txikiagoa da.

Miseria handiagoa sortzen dute programa horiek, aberastasuna kontzentratzen baitute eta osasuneko, hezkuntzako eta etxebizitza-arloko beharrak asetzeko baliabide gutxiago dituzten gobernuak ahultzen baitituzte.

c. Nazioarteko erlazio ekonomiko txarrak

Herri industrializatuetako enpresa handien menpe dago munduko ekonomia. Ikus ditzagun zenbait datu:

- Munduko enpresa eta banku inportanteenen %48 Estatu Batuetan dago; %30, Europako Batasunean; eta %10, Japonian.
- Munduko 10 banku nagusietako bost, 10 farmazia eta bioteknologia-enpresa nagusietako sei, 10 gas eta petrolio-enpresetako 4 eta buru diren 10 aseguru-enpresetako 9 Estatu Batuetan daude¹⁹.
- Estatu Batuetakoak dira munduko 100 enpresa nagusietako 57. Afrikak eta Latinoamerikak ez dute enpresarik zerrenda horretan²⁰.
- 2005ean, hazien mundu-merkataritzaren erdia kontrolatzen zuten 10 industriak²¹.
- Norvegia, Saudi Arabia eta Austriako Barne Produktu Gordinak baino handiagoak dira munduko enpresarik handienaren (Wal-Mart) salmentengatiko diru-sarrerak. Planetako hogeigarren ekonomia da Walt-Mart²².
- Agrotokioen salmentengatiko diru-sarreraren %84 hartzen dute 10 enpresak²³.
- Farmazia-produktuen mundu-merkatuaren %60 kontrolatzen dute 10 enpresak²⁴.



¹⁹ MARTA TAWIL, *¿Quién gobierna el mundo?*, La Jornada, México.

²⁰ MARTA TAWIL, *Ibidem*.

²¹ SILVIA RIVEIRO, *Los dueños del planeta: corporaciones 2005*, La Jornada, México, 2005.

²² SILVIA RIVEIRO, *Ibidem*.

²³ SILVIA RIVEIRO, *Ibidem*.

²⁴ SILVIA RIVEIRO, *Ibidem*.



- Albaitaritzaren produktuen mundu-merkatuaren %55 kontrolatzen dute 10 enpresak²⁵.
- Arrainen ekoizpenaren ehuneko 80 kontrolatzen du enpresa bakar batek, arrantzatik banaketara bitarteko prozesu osoa aintzat hartuta²⁶.

Enpresa horiek, duten ahalmen ekonomikoari esker, arauak jar ditzakete munduko merkatuan, eta beren irabaziak handitu ditzakete. Gainera, Munduko Bankuarekin, Nazioarteko Diru Funtzarekin eta horien antzeko tresnekin, enpresa handien zerbitzura dauden herrialde industrializatuak gobernuak gehiengoarentzat kaltegarriak diren eta, batez ere, munduko finantza-kapital handiari mesede egiten dioten politikak ezartzen dizkiete mendeko nazioei.

Mendeko nazioei gero eta baliabide handiagoak kentzeko tresna da kanpo-zorra. NDFk zorra ordaintzera derrigortzen ditu gobernuak, eta ekonomiak kaltetzen dituzten eta gehiago zorpetzen dituzten neurriak ezartzen ditu. Izan ere, etengabeko zorpetzea da haren logika: ordaintzea eta berriro zorpetzea. Botere-harremanak aldatu ezean, ez dago zirkulu horretatik irteterik.

Egoera hori nabarmentzen du adibide honek: 1980an 370 mila milioi dolarreko kanpo-zorra zuen Latinoamerikak. Ordutik zifra handiagoa ordaindu da, eta 2005ean zorra 678 mila milioikoa izatera heldu zen²⁷.

Inportatutako merkantziei zergak murriztera derrigortzen dituzte Munduko Bankuak eta NDFk herrialde pobre eta mendekoak, herrialde garatuak beren ekoizpenaren zati handi bat sal diezaieten, eta, gainera, gobernuen diru-laguntza jasotzen du ekoizpen horrek.

Ikus ditzagun diru-laguntzei buruzko zenbait datu:

- Espainian, kultibatutako arroz-hektarea bakoitzeko 1.124 euro (1.353 dolar) oparitzen diete abeltzainei, eta, horrekin, arrozaren kostuaren %95 ordaindu dezakete, gutxi gorabehera 1.400 euro. Grezian oso antzekoa da egoera. Portugalen, Italian eta Frantzian ere diru-laguntza asko daude²⁸.

²⁵ SILVIA RIVEIRO, *Ibidem*.

²⁶ *Globalización y trasnacionales amenazan la soberanía alimentaria AFP, 2004.*

²⁷ CEPAL, Hainbat urtetako urteko txostenetatik hartutako kopuruak.

²⁸ Nazio Batuen Ekonomia, Merkataritza eta Garapenerako Batzarraren Txostena (UNCTAD). www.unctad.org/infocomm/espanol/arroz/politicas.htm

- Animaliak elikatzeke erabiltzen diren zerealen kostua diruz laguntzen da Europan; gutxi gorabehera, txerri-haragiaren ekoizpen-kostuen %65 eta hegazti-sektorearen %70 estaltzen du laguntzak²⁹.
- Gurinaren arloan Europan izaten diren diru-laguntzak hain dira handia, ezen enpresaburuek irabaziak izango bailituzkete oparituta ere. Esnearen kasuan, prezioaren %60a heltzen da diru-laguntza³⁰.

Estatu Batuetan, arrozaren kostuaren %65³¹ eta artoaren kostuaren %86³² diruz laguntzen du gobernuak Barazkiak, esnekiak eta abeltzaintza ere diruz laguntzen dituzte. Japonian, Kanadan eta bestelako herrialde industrializatutan gauza bera gertatzen da.

“Soberakinak ekoizpen-kostua baino merkeago ekoiztea eta esportatzea bultzatzen dute diru-laguntza horiek. Horrek garabidean dauden herrialdeetako nekazariak kaltetzen ditu, ezin baitira prezioekin lehiatu³³.”

“Lehia” desberdin horren ondorioz, herrialde azpigaratuetako nekazariak behea jotzen dute, eta hirietara edo atzerrira joaten dira. Hori dela eta, Latinoamerikako hiri-pobrezia landakoa baino gehiago hazten da. 1980an, hirialdean 62,9 milioi pertsona pobre zeuden, eta 2002an, berriz, 146,7 milioi. Landa-pobrezia, ordea, 73 milioitik 74,8 milioira igo zen epe berean³⁴.

V. POBREZIARI AURRE EGITEKO MILURTEKOKO KONPROMISOAK

2000. urtean, munduko pobrezia aurre egiteko konpromiso-adierazpen bat egin zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak. Hona hemen pobreziarekin lotutako konpromiso zenbait:

1. “2015erako, egunean dolar bat baino gutxiago irabazten duten planetako bizilagunen eta gose diren pertsonen ehunekoa erdira murriztea; era berean, data horretarako, edateko ura eskura ez duten edo ordaindu ezin duten pertsonen ehunekoa erdira murriztea.”

²⁹ KHOR MARTIN, *Subsidios a las exportaciones agrícolas: después de 2013 cambiarán de forma, no se eliminarán*, 2006.


³⁰ www.comerciojusto.cl/observatorio/observatorio6/estudio_de_casos.htm

³¹ OXFAM, *El Arroz se Quemó en el DR-CAFTA*, 2004.

³² EL SALVADORREKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA MINISTERIOA, *Situación y Perspectivas del Sector Agropecuario en el Marco del Tratado de Libre Comercio Centroamérica-Estados Unidos*, 2003.

³³ INTERMÓN OXFAM, *Europako nekazaritza-ekoizlerik handienei 1.300 euroko diru-laguntzak ordaindu zizkien EBk*, 2006.

³⁴ CEPAL, *Ibidem*.



2. “Sexuen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea, pobrezia, goseari eta gaixotasunei aurre egiteko eta egiazko garapen jasangarria suspertzeko.”

VI. GORANTZ DOA POBRETIA

1990. urtean, mundu osoan 1.250 milioi pertsona bizi ziren egunean dolar batekin baino gutxiagorekin, hau da, muturreko pobrezian; 2004an, berriz, 980 pertsona³⁵. Beraz, kopuruak behera egin du. Joera hori, ordea, ez da berdina herrialde guztietan. Asian, batez ere Txinan eta Indian –populazio-dentsitatea handia den herrialdeetan–, hazkunde ekonomiko bizkorren ondorioz jaitsi da muturreko pobrezia orokorra. Nolanahi ere, gainerako herrialdeetan bere horretan gelditu da kopuru hori, eta zenbait kasutan handitu ere egin da, milurtekoko helburuak gorabehera.

Munduan dugun genero-ezberdintasuna ikusita, nabaria da erabateko pobrezia hazkundeak emakumei eragiten diela gehienbat, eta NBEk murriztu nahi zuen sexuen arteko ezberdintasuna handitzen duela.

Datu horiek ez dira harrigarriak; izan ere, milurtekoko helburuetan ez zen ezarri gobernuak aberastasuna metatzeko politikak aldatzea, ezta nazioarteko harreman ekonomikoak aldatzea ere. Hau da, ez zen proposatu pobrezia egiazko arrazoiei kontra egitea.

Milurtekoko adierazpenean hau baino ez zen proposatu: “sektore pribatuarekin eta garatzearen aldeko eta pobrezia aurre egiteko sozietate zibileko erakundeekin kolaboratzeko modu sendoak ezartzea”. Iradokizun hori ez da oso zehatza, ezta oso konprometigarria ere.

Bestetik, adierazpenak herrialde industrializatuei “hain garatuta ez dauden herrien ia esportazio guztien gainean eskubide eta kupo libreko politikak har zitzaten³⁶” eskatu bazien ere, horiek ez dute esparru horretan aurrerapausorik egin. Gainera, adierazpenak ez ziren eskatu herrialde garatuei herrialde azpiaratuen

³⁵ NNUU, *Objetivos de Desarrollo del Milenio. Informe 2005*, www.un.org/spanish/millenniumgoals/index.html

³⁶ www.un.org/spanish/milenio/sg/report/full.htm

esportazioek dituzten diru-laguntzak eta osasun-baldintzak kentzea zitzaten, merkataritzarako oztipo handiena izan arren.

FAOren azken txostenaren arabera, Latinoamerikako sei herrialdek baino ez zuten lortu goseagatiko heriotzen ehuneko $\%25$ murriztea: Txile, Costa Rica, Kuba, Ekuador, Peru eta Uruguai. Gosearen kontrako borrokan, Kuba da aurrerakuntza gehien izan dituen herrialdea; izan ere, herri horretako gobernuak lortu zuen jatekorik ez zutenen kopuru osoa erdira jaistea³⁷.

Venezuelan pobrezia murriztu dela ere jaso du CEPALek. Honako hau esan zuen CEPALek Latinoamerikako egoerari buruzko azken txostenean (2005. urtean):

“Venezuelako Errepublika Bolibartarrean ere politika soziala nabarmen laguntzen ari da pobrezia murrizten... pobrezia eta txirotasunak murrizketa handia izan zuten 2004an. Hazkunde ekonomikoaren susperraldiarekin batera, programa sozialen azken urteotako ezartze masiboak eragina izan du emaitza horretan.

Kasu horretan, nabarmentzekoa da doaneko edo diruz lagundutako zerbitzuen emate zuzena eta generotako transferentziak lehenesten dituela ekintza publikoak, diru-transferentzien aurrean, baino ‘misio sozialak’ izeneko gizarteratze-programei esker.”

Informazio horren arabera, Venezuelan, hazkunde handia duen herrian (2004an eta 2005ean Latinoamerikako handiena), pobrezia beherantz doa, hain zuzen ere, gobernuak aberastasuna birbanatzeko neurriak aplikatzen dituelako. Ekoizpenaren hazkundeak modu horren bidez baino ezin du lagundu pobrezia murrizten.



³⁷ La Jornada egunkari mexikarra, 2004ko abenduaren 10a.



EZTABAIDARAKO ETA EKINTZARAKO GALDERAK EDO EZTABAIDAGAIAK

- Zure ustez, testuko zer elementu dira berritzaileak?
- Zerk harritu zaitu?
- Zer gehituko zenuke?
- Egin ezazu mapa kontzeptual bat pobrezia eragiten duten arrazoiak eta horien ondorioak identifikatuz. Zer ikusten duzu? Alderatu eta osatu taldeko gainontzeko kideekin.
- Zein dira talderik ahulenak? Zer egin daiteke haien egoera hobetzeko?
- Zure ustez, zer egin dezakezu zuk egoera hori hobetzeko?
- Egin iritzi-gutun bat testuan agertzen diren datuek iradokitzen dizutenarekin.
- Idatz iezaiezu gutun bat Europako nekazariei eta kontsumitzaileei. Zer esango zenieke eta zer proposatuko zenuke?
- Egin ezazu munduko mapa bat eta identifika itzazu eremuak pobrezia-egoeraren arabera, kolore, irudi ezberdinak erabiliz. Beste munduko mapa batean, identifikatu gobernuek pobrezia hori saihesteko egiten dituzten ekintzen arabera.
- Hedatu zure iritziak eskura dituzun komunikabideen bidez: prentsa, irratia, Internet...



PERUKO JUBILEU SAREA*

AURREKONTU NAZIONALEAN, GIZARTE-ZORRA LEHENIK

Peruko herritarrek gogotsu hartu zuten parte 1999an egin zen “Bizitza zorraren aurretik” kanpainan. Eliza katolikoaren apezpiku-batzarrak bultzatu zuen kanpaina, gizarte-ekintzarako batzordearen bidez. 1.856.000 sinadura bildu zituzten herrialde pobreen zorra deuseztatzea edo nabarmen murriztea eskatzeko. Kolonian egin zen G7koen Gailurrean aurkeztu zituzten sinadurak. Kanpainak harrera bikaina izan zuen kale, plaza, merkatu, ikastetxe, unibertsitate, eliza, fabrika eta herri-jantokietan. Prozesu horretan jubileu biblikoko zor-barkamenaren eguneratzean oinarritu zuten euren konpromisoa hainbat elizetako sinestunek.

Kanpo zorra ez zela “aditu” edo “politikarien” kontua soilik, baizik eta euren zuzenean zegokiela ohartzen hasi ziren herritar xeheak. Herrialde osoan egin ziren hainbat tailer eta forotan parte hartu zutenek lotura argia ikusi zuten bi hauen artean: euren bizi-baldintzak eta (zenbaitek adierazi dutenez) antzinako “indietako zergaren” bertsio modernoa den kanpo-zorra. Jendea ohartu zen zorra, dituen ezau-garriengatik, mendekotasuna sortzen duen menderatze-tresna dela. Herrialdeko ekonomiaren arazoak eta mailegu-emaile bati ordainketak egin ahal izateko oinarritzko beharrak (elikadura, osasuna, heziketa...) asetzeari uko egin beharrean dagoen familiaren egoera dramatikoarekin parekatu zituzten.

* Red Jubileo Perú peruko gizarte zibilak sortutako sare bat da zein gizarte erakundeez, gremioez, garapenaren sustapenaren alde lan egiten duten erakundeez, ikerketa zentroez eta elizez osatua dagoen. Zor publikoaren deuseztatpenaren edo honen gutxipen erreale baten alde lan egiten dute. Talde hauen ustez, zorraren zati handi bat ustelkeria zorra da, beraz, legearen kontrakoa. Gainera, gain ordaindua dagoela baieztatzen dute (www.jubileoperu.org.pe).

Testuinguru horretan sortu zen Red Jubileo Peru¹; ofiziale-elkartek, gizarte-erakundeek, emakume-elkartek, talde erlijiosok, instituzioek eta gizarte zibileko hainbat taldek osatzen dute. Ordutik, talde horrek lanean jardun du zorraren gaia herritarren kontzientzian eta ekintzan bizirik iraunarazteko.

Duela urte kanpaina hau egin zen: “Aurrekontu nazionalan, gizarte-zorra lehenik”. Sareak antolatuta 2002ko irailaren amaieran egin zen “Kanpo-zorra edo bertiereko zorra? Zorra deuseztatzeko ituna” foroan izan ziren lider sozialek planteatu zuten gizarte zibilaren ahotsa sentiarazi beharra zegoela Aurrekontu Publikoan zorra ordaintzeko gehiegizko zenbatekoa murrizteko eta handik libratutako funts horiekin inbertsio soziala handitzeko (hau da, gerorako utzitako herritarren beharrak edo “zor soziala” deitzen dugunari erantzuteko). Cuscoko Nekazarien Departamentu Federazioko buruzagi bat honela mintzatu zen: “Kanpo-zorraren ordainketa murrizteko kanpaina egin behar da. Herritarren beharren arabera non eta zertan inbertitu behar den planteatu behar du sektore bakoitzak”.

Horrela, urrian bertan, deialdi bat egin zen komunikazio-materialen bidez eta espezialista batek proposamen bat prestatu zuen hainbat sektoreen ekarpenetan oinarrituta. Proposamen hori Herritarren Ekitaldi batean eztabaidatu eta onartu zen eta gero Kongresu Nazionalan aurkeztu zen, mobilizazio baten bidez. “Por más chamba², salud y educación: deuda Externa: REDUCCION”; esaldi hori ekintzetan parte hartu zuen gazte-talde batek sortu zuen.

Peruko Jubileu Sareko partaide ziren erakundeetako ordezkariak Kongresuan hartu zituen Kanpo Zorra Aztertze Batzordeko presidenteak eta parlamentuan prentsaurrekoa eman zuten.

Geroago, Sareak bere proposamena findu eta gehiago azpimarratu zuen. Dioenez, ez litzateke errepublikaren aurrekontuaren %15 baino gehiago bideratu behar zor publikoa ordaintzera³. Zehazten du zorra ordaintzetik askatutako funtsekin hone-lako lehenasuneko programa sozialak gauzatu behar liratekeela: haurren elikadura, emakume haurdunen zainketa eta elikatze osagarria, osasuna, landa-eremuetako heziketa eta heziketa publiko nazionalaren kalitatea hobetzea, lurralde pobreenetako nekazaritzarako laguntza, saneamendua, etxebizitza babes-

¹ Hasieran “Red Perú Jubileo 2000” deitua.

² “Chamba”-k lana edo enplegua esan nahi du herri-hizkeran.

³ 2005eko Aurrekontuan gastuaren %26,7 zor publikoa (kanpokoa eta barnekoa) ordaintzera bideratu zen; Heziketara bideratutako gastua, berriz, %15,9koa izan zen, eta Saneamendurakoa, %,7,8koa.

tua eta Egiaren Batzordearen⁴ aholkuen arabera indarkeriaren biktimentzako kalte-ordainak. Era berean, nabarmentzen du zerga-sistema berritu beharra dagoela egitura zuzen eta bidezkoago bat ezarriz estatuaren diru-sarrerak areagotu eta Peruko ekonomiak gaur egun duen “zor-mendekotasunari” aurre egin ahal izateko. Horretan guztian herritarren parte-hartzea eta kontrola sustatzea ezinbestekotzat jotzen da.

Hurrengo urtean, hobetutako proposamena eztabaidatu eta onartu zen “Parte hartu Aurrekontu Nazionalen” ekitaldi publikoan eta elkarretaratzea egin zen Kongresuaren aurrean. Jubileu Sareko ordezkarien batzorde bati harrera egin zioten Aurrekontu Batzordeko kide batzuek.

Hainbat alderditako biltzarkideek bi arrazoi nagusi azaldu zituzten aurrekontuen lege-proiektuaren joera nagusiak aldatzeko egindako ahalegin eskasa edo ahaleginik eza justifikatzeko: bata, zorraren ordainketa murriztea onartzeko Gobernuak (botere exekutiboak) Peruren hartzekodunekin negoziazioa egitea beharrezkoa zela. Bestea, indarrean dagoen legediak aukera gutxi emango liokeela Kongresuari aurrekontuen egiturari dagokionez eta, beraz, Ekonomia eta Finantza Ministeriora jo behar genuela. Iritzi horietan baliozko elementuak badaude ere, iruditzen zaigu parlamentariak bertan behera utzi dituztela dagozkien zenbait eskuduntza. Interes nazionalak eta bereziki pobrezia-egoeran dauden sektoreenak defendatzeko borondate politiko sendoagoa nahi dugu.

Esperientzia kontuan hartuta, Sarean bi erabaki hartu genituen. Batetik, Gobernuari publikoki behin eta berriz azpimarratzea presidente ohi eta egun iheslari Alberto Fujimoriren Gobernuak zorraren gainean ezarritako baldintzak aldatzeko negoziatzen hasteko premia dagoela. Bestalde, gizarte zibil gisa Peruren hartzekodun garrantzitsu batzuegana zuzenean joateko erabakia hartu genuen.

Tarte horretan (2004), Peruko Gobernuak zorra “berriz taxutzeko” eragiketak hasiko zituela jakinarazi zuen; besteak beste, Parisko Klubari proposatu beharreko ekimen bat eta zenbait herrialderi zorra inbertsio sozialekin trukatzeko proposamena egitea. Horren aurrean, gardentasunez jokatzeko eta egin beharreko eragiketetan interes nazionalak egoki defendatzeko eskatu dio Sareak Gobernuari.

⁴ Peruko Egiaren eta Berradiskidetzaren Batzordea (CVR) Dekretu Goren bidez sortu zen 2001eko ekainean, Trantsizio Gobernuaren garaian, zeregin honekin: “indarkeria terroristaren prozesua, ekintzak eta ardurak eta 1980ko maiatzetik 2000ko azarora bitartean gertatutako giza eskubideen urraketak, erakunde terroristei zein Estatuko agenteei egotz dakizkiekeenak, argitzea eta perutarren artean bakea eta gogaidetasuna indartzeko ekimenak proposatzea”. CVRk 2003ko abuztuaren 28an aurkeztu zuen bere Txostena herritarren aurrean; indarkeriaren biktimentzat Ordain (kolektibo zein indibidual) Programa Oso bat jasotzen du txostenak.

Jubileo Peruk, aldi berean, itunak egin ditu lau herrialdetako elkartasun-taldeekin eta gizarte-eragileekin: Alemania, Frantzia, Italia eta Espainia. Elkarrekin, herrialde horietako gobernuak “El desarrollo del Peru necesita desendeudamiento” dokumentua aurkeztu diegu. Peruk herrialde horietako bakoitzarekin duen zorra murrizteko beharra argudiatzen eta proposatzen du dokumentuak.

Borrokari eutsiz, Ekonomia eta Finantza Ministerioarekin elkarriketatu nahi du orain Sareak, 2006rako aurrekontua prestatzeko fasean.

“Gure erakundeek ondo dakite zorraren gaiak komunitate osoari eragiten diola”, diote ozen Herri Jantokien Metropoli Federazioko buruzagiek. Horregatik, horiek eta askoz jende gehiagok aurrera jarraitzen du borroka honetan. Ez da gizalegekoa ez etikoa 2005. urtean perutarren oinarriko kontsumoaren defizita 12.334 milioi solekoa izaki aurrekontuan 13.164 milioi sol esleitu behar izatea zorra ordaintzeko. Joera horiek jarraituz gero, argi dago ezinezkoa izango dela Milurteko Garapen Helburuak iristea.

Peruko Jubileu Sareko kideek ikasi dute beharrezkoa dela gaur egun Iparraldeko gobernuetan eta organismo multilateraletan erabakiak hartzeko boterea dutenen borondatea gure herrialdeetako zorraren arazoari irtenbidea emateko. Halaber, ikasi dute ezinbestekoa dela gaur egun hartzekodunen eta zordunen artean dauden erlazio asimetrikoak gainditzea eta indarrean dagoen nazioarteko finantza-sistema aldatzea irizpide bidezko eta benetan demokratikoen bidez.

Sareak ez ditu gutxiesten lorpen txikiak. Peruri ez zioten zorra murrizteko lehen-tasunik eman, “erdi mailako” diru-sarrerak dituen herrialdeetat jo baitzuten (adierazle engainagarria diren per capita diru-sarreraren arabera eta kontuan hartu gabe adierazle sozialak, hala nola pobrezia-maila handiak, elikadura-urritasuna, langabezia, baldintza onartezinako lana eta desberdintasun-koefizientea). Hala ere, pobrezia-aren aurka borroka egiteko eta garapenerako zenbait proiektu badira zorraren truketik datozen funtsekin finantzatzen direnak eta tokiko eta oinarriko erakundeek zuzenean parte hartzen dutenak. Beste aurrerapen bat honako hau da: herritar-sektore askok (ofiziale-, nekazari-, emakume-, irakasle- eta gazte-elkarteek eta abarrek) zorraren eta aurrekontuaren gaia euren agendan hartzen eta borroka-eta mobilizazio-plataformetan sartzen dute. Halaber, agintariekin elkarriketa-bideak ireki dira eta herritarren ahotsa entzuten hasiak dira, oraindik hasi berriak diren arren. Azkenik, indarrean dauden politiken aldaketan eraginkortasuna lortzeko, Sarea Hegoaldeko beste herrialde batzuekin koordinatuta dago Zorraren

Andeetako, Ertamerikako eta Amazonetako Estrategiaren bidez (ACAA Estrategia), Jubileo Sur-ekin koordinatuta dago eta itunak egiten ditu Iparraldeko herrialdeetako Kanpainekin. Peruko Jubileu Sarea Pobreziaren Aurkako Ekintzarako Deia-n sartuta dago gaur egun, Peruko eta Latinoamerikako beste erakunde batzuekin batera⁵.

⁵ Pobreziaren Kontrako Mundu Deialdia (GCAP sigla ingelesez) 100 herrialdetik gora biltzen dituen aliantza da, pobreziaren aurkako konpromisoa duten hainbat gizarte taldek, koalizioek, sindikatuk, erakundeek, norbanakok, talde erlijiosok eta ekintzailek osatua. Talde horiek zerrenda zuriaren sinboloa erabiltzen duten koalizio nazionalak eratu dituzte GCAPren eskakizunak zabaltzeko eta euren jarraitzaileei buruzagien eta erabakiak hartzen dituztenen gain presioa egiteko. Gure inguruan "Zero pobrezia" kanpaina deitzen diogu (www.pobrezacero.org).



JUBILEU KANPAINA BRASILEN

Demokrazia berreraikiz

*Bernard Lestienne sj**

Gobernatze ona eraikitzea da herritar guztiei eragiten dieten erabakietan gizarte zibileko sektore guztien parte-hartzea sustatzea. Herralde askotan, helburu horrek oso urruna dirudi oraindik. Alderantziz, demokrazian funtzionatzea mehatxatzen duen etengabeko botere-kontzentrazioa ikusten dugu. Interes ekonomikoek erabaki politikoak menderatzen dituzte eta gehienen interesak, denen onura, ordezkutzen. Benetako demokrazia galbidean jartzea edo ukatzea da hori.

Demokrazia berreraikitzeke esperientzia aberats baten berri emango dugu, herritar guztien interesak defendatzeko mugimendu eta parte-hartze zabal baten berri. Esperientzia hori berezia da. Duela zazpi urte hasi zen eta herralde osoko herritarrak mobilizatzen jarraitzen du garrantzizko zenbait gai direla eta; besteak beste, zorra eta merkataritza librea. Brasilgo Jubileu Kanpaina da.

JUBILEU KANPAINA BRASILEN

Urte luzez, Kanpainak milaka militante eta ekintzaileren indarrak mugiarazi ditu. Parte-hartzeko, gogoetako, eztabaida eta prestakuntzako, antolaketa eta ekintzako prozesu oso aberatsa izan zen eta hala izaten jarraitzen du. Zalantzarik gabe, herritarren prestakuntza demokratikorako eskola bikaina da. Agintzari lauso engainagarritz betetako hauteskunde-kanpainak baino gehiago, Brasilgo herritarren heziketa politikoko prozesu handienetako bat –agian, handiena– izan da prozesua.

* Bernard Lestienne sj IJND-ko presidentea da (Red Internacional Jesuita para el Desarrollo) www.jesuit.ie/ijnd

70eko hamarkadaren amaieran –diktadura militarren gainbeheran–, sindikalismo borrokalari berri bat sortu zenean, eratu zen herritarren antolaketa- eta mobilizazio-mugimendu indartsuan kokatu behar da kanpaina. Toki askotan grebak egin ziren, gizarte-mugimenduak (nekazariak, bizilagunenak, gazteenak, emakumeak, beltzenak, indiarrenak...) berrantolatu egin ziren eta auzo-elkarteek euren kideen beharrak adierazi zituzten. “Herri mugimenduak” gizarteari irekitako eremua betetzen jakin zuen 1988ko Konstituzio berria egin zenean. Pixkanaka, mugimenduen, elkarten edo komunitateen artean egin ziren topaketa ugarietan metodo demokratiko parte-hartzaile bat finkatu zen, neurri batean Paulo Freireren pedagogia askatzailean oinarritua.

Eliza katolikoko sektore batzuek gogotsu hartu zuten parte “berreraikuntza demokratikoko” prozesuan, ikuspegi eta balio komunak partekatzen zituzten beste talde batzuekin batera. CNBBko (Apezpiku Batzar Nazionala) Gizarte Sektorearen ekimen ugarietako bat “Aste Sozialak” izan ziren. Lehenengoak urtebete iraun zuen (1991); bigarrenak, bi (1993-1994) eta, hirugarrenak, hiru (1997-1999). Azken horrek “zor sozialak berreskuratzean” jarri zuen arreta. 1997an, ezagutza lantzeko prozesu aberats batean, alor guztietako komunitate eta taldeek 28 “zor” –herriari lapurreta egiten zitzaion alorak– identifikatu zituzten. Zor horietako gehienak sus-traia kanpo-zorra zen. 1998ko uztailean kanpo-zorrari buruzko sinposioa antolatu zen Brasilian, eta 150 pertsonak parte hartu zuten: herri-liderrak, arduradun politikoak eta intelektualak ziren, herritarrek jasaten zuten egoeraren ikuspegi kritikoa zutenak denak. Sinposioaren garaian jaio zen kanpaina, eta “Kanpo-zorraren aurkako 2000 Jubleu Kanpaina” izena hartu zuen. Jubileu-urtea baino lehen 50 herrialde baino gehiagotan antolatu ziren 2000 Jubleu Kanpainak. Ziurrenik, Brasilen izan zuten Kanpainak zabalkunde eta oihartzunik handiena.

Mobilizazioa areagotzeko, “Kanpo-zorraren auzitegia” antolatzea erabaki zen sinposioaren amaieran. Rio de Janeiron egin zen, 1999ko maiatzean, hiru egunez. Brasilgo toki guztietatik bi mila pertsonatik gora etorri ziren eztabaidetan parte hartzera. Askotan, aski astunak ziren eztabaidek agerian utzi zituzten herrialde pobreetatik iparralde aberatserako baliabide-isurketa gero eta handiagoak dakartzan ondorio ekonomiko, politiko eta sozialak. Auzitegiaren azken epaia da, oraindik ere, Brasilgo zorrak eragindako krisiaz egin den txostenik irmoenetakoa.

2000. urtean herrialdearen “aurkikuntzaren” 500. urteurrena bere erara “ospatzea” erabaki zuen Kanpainak, eta ausardiaz erabaki zuen zorrari buruzko herri-galdeketa nazionala egitea Aberriaren astean (irailaren 1etik 7ra), zehazki irailaren

7an, independentziaren egunean. Mobilizazio nazionala izan zen. Hilabete luzez, eskoletan, autobus geltokietan, futbol-estadioetan, unibertsitateetan, fabriketan eta abarretan, azken batean herrialde osoan, zorraren gainean eztabaidatu zen. Gobernuak kritikatu egiten zuen ekimena, telebistaren bidez; alabaina, propaganda handia egin zuen herri-kontsultaren gaineko informazioa zabalduz. Slogana hau zen: “Bizitza zorraren gainetik”. 120.000 boluntario baino gehiagok sormen handiz antolatu zuten plebiszitua alor guztietan: plazetan eztabaidak, antzerkiak, bideoak, kantuak, hainbat eratako jokoak eta abar; 53.000 kutxa baino gehiago muntatu, milioika txartel inprimatu eta banatu... Mobilizazio nazionala izan zen. Herrialdeko 5.000 udalerritatik 3.444tan egin zen bozketa. Sei milioi herritar baino gehiagok bozkatu zuen.

“Esperientzia paregabea izan zen. Era pedagogikoan eta talde guztientzat prestatutako material sinplearekin gauza konplikatuak gainean eztabaidatzeko aukera izan zen. Herri-kontsultaren metodologia, zuzenekoa, oso garrantzitsua da.” Hala zioen parte-hartzaileetako batek.

2001ean, plebiszituari jarraipena emanez, zorraren kontu-ikuskapen publikoa antolatzeke mobilizatu zen Kanpaina. 1988ko Konstituzioan jasota egon arren inoiz egin gabea zen ikuskapena. Helburua zen agerian jartzea nork sustatu zituen zorrak eta nor baliatu zen gehien haietaz. Proposamen hori abiarazteko, ekonomista, jurista eta gizarte-zientzietako pertsonak osatutako talde batekin auditoria publiko bati ekin zitzaion. Emaitza partzialak oso interesgarriak izan ziren eta, hizkera ulerterrazean jarrita, herritar guztien artean banatu ziren.

Hala ere, aldi berean, AEBen beste kolonizazio baten ikuspegiarekin herrialdearen subiranotasuna mehatxatzen zuen ALCAREN (Ameriketako Merkataritza Libreko Eremua) gaineko negoziazioak biziagotzen ari ziren. ALCARI bidea ixtea Kanpainaren lehentasun bihurtu zen. Eztabaida ugariren ondoren, lehen plebiszituaren esperientzia baliatuz, 2002ko Aberriaren Astean beste plebiszitu bat antolatzea erabaki zuen koordinakundeak. Berrito milaka eztabaida, informazio- eta prestakuntza-ekitaldi egin ziren. Bere etorkizunerako funtsezkoa zen gaia aztertu zuen herriak, eta ondorio honetara iritsi zen: estatuak ez zuela inolako gardentasunik zorrari zein ALCARI zegokienez, kabineteen itzalean egindako negoziazio hain garrantzitsu haiei buruzko informaziorik ez baitzizaion eman ez herriari, ez Kongresuari berari. Eta Brasilen hasitako Kanpaina beste herrialde batzuetara eta hemisferio osora hedatu zen, pixkanaka. Komunikabide ofizialen isiltasuna edo kontrainformazioa gorabehera, 11 milioi pertsonak baino gehiagok hartu zuten

parte bozketan. Ekimen hori demokraziarentzat beste garaipen bat izan zen. Gizarteak 2000. urtean baino are parte-hartze handiagoa izan zuen. Benetako demokraziaren adierazpen handienetakoa bihurtu zen.

Plebiszitu haren emaitza handiak jarri zuen, gobernuak ALCA itxaronaldian, parte-hartzaileek ziotenez. Gobernua ez zen ALCAko kide egin. Badirudi orain negoziazioak berriro hastekoak direla. Presioa mantendu egin behar dugu.

2003an, zorraren eta ALCAren aurkako mobilizazioarekin jarraituz, eskaera nazional handi bat egin eta hiru milioi sinadura baino gehiago bildu zituen Kanpainak gobernuko presidente berri Lulari kanpo –zein barne– zorrari buruzko kontu-ikuskapen publiko bat eskatzeko (kanpo-zorra bikoiztu egin zen 1995-2002 urteetan, Fernando Henrique Cardosok agintzen zuen bitartean, eta barnekoa hamar aldiz handitu zen aldi berean). Zoritxarrez, gobernu berriak ez zien jaramonik egin nahi izan hainbeste ahotsi. 2003an eta 2004an, Kanpo Arazoetarako Ministerioarekin batera joan zen Kanpaina merkataritza libreko itunen gaineko negoziazioetara:

1. MMEren Dohako errondara.
2. ALCAra.
3. MERCOSUR eta Europar Batasunaren artekoa.

Zalantzarik gabe, kanpo-politika aldatu zuen gehien gobernu berriak. Horrek erakusten du gobernu honek aurrekoak baino ausardia handiagoa duela subiranotasun nazionala defendatzeko, MERCOSUR sendotzeko eta Latinoamerikaren integrazioa sustatzeko, aurreko hura prest baitzegoen ALCA onartzeko AEBek ezarri nahi zuten eran, eurek menderatzeko eskualde osoko merkataritza. Ministerio berriak guztiz bestelako jarrera izan zuen, askoz gardenagoa: Brasilen eta Latinoamerikaren interesak defendatzen zituen, negoziazioen gaineko informazio zabalagoa eskaintzen eta elkarrizketa errazten. Hain zuzen ere, 2003an negoziazioak hozteak erdi-koloka utzi zuen kanpaina, estatubatuarren proposamenaren aurkako presioari ondo nola eutsi ez zekiela.

Munduko Gizarte Foroak, Brasilen antolatu ziren lauak eta Indian egin zena, baliatu zituen Kanpainak ALCAren aurkako mobilizazio kontinentala bultzatzeko eta sendotzeko. 2002ko MGFan, Kanpainak, Hegoaldeko Jubileu Kanpainarekin (Latinoamerika, Afrika eta Asia) batera, Zorraren Nazioarteko Epaimahaia antolatu zuen, 30 herrialdetako ordezkariekin. Pixkanaka, eztabaida askoren bidez, Brasilgo Jubileu Kanpainak mundu osoko erakunde askori erakutsi zien zorraren, merkataritza li-

brearen eta militarizazioaren arteko lotura estua: guztiak menderatze ekonomiko eta politikorako estrategia beraren osagaiak direla.

Lula presidente berriaren gobernuaren langile-jatorrikoa eta herritarrek aldatuta sozialerako zuten itxaropenaren hartzailea—merkataritza-negoizazioaren arauak aldatzen saiatu zen, baina ez zuen ezertan aldatu aurreko gobernuaren politika ekonomiko eta finantzario neoliberalak. Zor publikoa zorrotz ordaintzearen kostu soziala (kontu-ikuskapenik antolatu gabe) ikaragarri handia da eta aldatuta saskonak ezinezko egiten ditu. Lulak politika hori egiteak, hartzekodunen alde eta gehienenen interesen aurka jarduteak, harridura, etsipena eta desmobilizazioa eragin zuen urte luzez aldatuta sozialen alde borrokan aritu eta konfiantza beregan jarrita zutenengan.

Aldaketa herritik dator... Bat-batean, jendea konturatzen da ez dela hauteskunde-kontua bakarrik, mobilizazioak duela lehentasuna... Norabidea erakutsi behar dutenak sistemak gehien kaltetutakoak dira.

Testuinguru horretan, CNBBren 4. Aste Sozialak (2004-2006) desmobilizatuta eta etsita zeudenak berriro mobiliza zitzakeen gai bati heldu zion: “Brasil berri baten aldeko topaketa (mutirão)”. Helburua zen pertsona guztien parte-hartzea eta adierazpena, bereziki pobreena eta gizartetik kanpora utzitakoena, sustatzea. Halaber, egoera zail horretan, Kanpainaren lehengo bi plebisituak babestu zituen OAB Brasilgo Abokatuen Elkargoak Kongresuari eskatu zion zorraren gaineko kontu-ikuskapen publikoa egiteko agintzen duen Konstituzioko artikulua betetzeko, eta prestatzeko lege-proiektu bat herritarrek herrialdearen etorkizunerako garrantzitsuak diren gaiei buruz herri-kontsultak egiteko prozesu bat sortzeko. Bestalde, 2005ean, Kanpainak erabaki zuen lehentasuna emango ziola oinarriaren prestakuntzari, galdetegi baten bidez lagunduz militanteei bizi duten egoera, beharrak, egoeraren arrazoiak eta haiei aurre egiteko erak aztertzen.

KANPAINAREN ARRAKASTARAKO ARRAZIOAK

Arrazoi askok azaltzen dute Kanpainaren arrakasta eta iritsi zuen mobilizazioa. Kanpainaren lan guztia boluntarioek egin zuten, prozesuaren lider izateko protagonismoetarako aukerarik gabe. Egiturak, arinak eta deszentralizatuak izan ziren. Ahalik eta pertsona eta ekimen gehien partaidetza eta sormena sustatu zuen horrek. Nazioan, estatuan eta herri bakoitzean, ekintzen alderdi politikoa eztabaibatuzeko koordinazioa izan zen, baitazereginak burutzeko taldeak ere (komunikazioa, mobilizazioa, prestakuntza, finantzak, harremanak...). Hau da, Kanpainaren

antolaketa orokorra bertikala baino gehiago baino horizontala izan zen. Metodologia ere lagungarri izan zen. Parte-hartzea, sormena, oinarri sozialetik sortutako ekimenak, pluraltasuna, material pedagogikoen aniztasuna eta kalitatea, eztabaiden dimentsio politikoa, gizarte zibileko indarren eta alderdi politiko batzuen arteko batasuna, azterketaren, gogoetaren eta ekintzaren artikulazioa... Horiek guztiek prestakuntza politikoko eta parte-hartze demokratikoko laborategi eta eskola erraldoi bihurtu zuten kanpaina. Pertsona, komunitate eta talde askoren sormena, trebetasuna eta adorea jariatutako iturria izan zen herri-kultura. Pazientzia, itxaropena eta indar-batasuna prozesuan sortutako oztopo eta zailtasunak gainditzeko lagundu zuten balio sakonak izan ziren.

Elizak pertsona pobreak lehentasunez hautatzeak aukera bera egin duten erakunde guztiekin elkartzerako behartzen gaitu: mugimendu sindikalarekin, gizarte- eta herri-mugimenduekin. Mugimendu demokratiko guztiak batuta bakarrik sor daiteke herri-proiektu bat.

Argi dagoenez, gizarteko sektore zabal batzuk hain formala ez den demokrazia baten bila “boterea hartzeko” esperientzia aberatsa izan da Brasilgo Jubileu Kanpaina. Herriak parte hartzeko zuen nahia eta gai konplexuen gainean eztabaidatzeko gaitasuna izan ziren Kanpainaren bultzagilenagusiak. Parte-hartzea, batasuna eta pluraltasuna izan ziren –gizarte zibilaren eta alderdi politikoen logika politiko desberdinetatik haratago– mugimendua indartzeko funtsezko giltzarriak. Kanpaina ez da amaitu, baina estrategiak ebaluatu eta Brasilgo testuinguru politiko berrira egokitu beharra dago.



GLOSARIOA

MUNDUKO BANKUA: 1944an sortu zen nazioarteko erakunde hau, Bigarren Mundu Gerrak suntsitutako Europa berreraikitzen laguntzeko. Bankuak arrakasta lortu zuen zeregin horretan, eta, zenbait urteren ondoren, garabidean zeuden herrialdeez arduratzen hasi zen. Egun, 184 estatu kideren eskuetan dago, eta munduko pobrezia murriztea eta pertsonen bizi-maila hobetzea ditu helburu. Helburu hori interes baxuko maileguen, interesik gabeko kredituen eta hezkuntza-, osasun-, azpiegitura- eta komunikazio-proiektuetarako eta abarretarako dohaintzen bidez gauzatzen da. Hauek osatzen dute Munduko Bankua Taldea:

- Berreraikuntza eta Sustapeneko Munduko Bankua; kreditu-gaitasuna duten herrialde pobreetara eta diru-sarrera ertainak dituzten herrialdeetara bideratzen ditu bere jarduerak.
- Nazioarteko Garapen Elkartea (NGE) die.
- Hiru erakunde kide hauek: Nazioarteko Finantza Korporazioa, Inbertsioak Bermatzeko Alde Anitzeko Erakundea eta Inbertsioei buruzko Desadostasunak Konpontzeko Nazioarteko Zentroa.

[www.bancomundial.org]

CEPAL: Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoa. 1948an sortu zuen Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak. Latinoamerikako ekonomia-garapenari laguntzeko, Latinoamerika sustatzeko ekintzak koordinatzeko eta herrialdeen arteko eta munduko gainerako nazioekiko ekonomia-harremanak sendotzeko sortu zen. Ondoren, Karibeko herrialdeetara ere zabaldu zen Kontseiluaren zeregina, eta bere egin zuen gizarte-garapena sustatzeko helburua. Nazio Batuen bost eskualde-batzordeetako bat da.

[www.cepal.org]

MILURTEKOKO ADIERAZPENA: 2000n, Milurtekoko Goi-bilera esan zitzaiona egin zen Nazio Batuen New Yorkeko egoitzan. Goi-bilera hartan, konpromiso batzuk ezartzea adostu zuten 189 estatuburuk, pobreziari, goseari, gaixotasunei, analabetismoari, ingurumenaren degradazioari eta emakumeen aurkako diskriminazioari aurre egiteko; konpromiso horiek neurgarriak ziren, eta epe zehatzak zituzten. 2001ean, sistematizatu egin ziren, eta “Milurtekoko garapen-helburuak” izena eman zitzaien.

Mensajero aldizkaria, “Levántate contra la pobreza”, 2006ko abendua.

[<http://spanish.millenniumcampaign.org>]

FAO: Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundea 1945ean sortu zen. 180 estatu kide ditu, baita beste kide bat ere; Europako Erkidegoa, hain zuzen ere. Hauxe da bere zeregina: gosea erazteko nazioarteko jarduerak bideratzea, eta laguntza teknikoa ematea, herrialde pobreenetako jendearen nutrizio-maila igozten lagunduko duten nekazaritza-, baso- eta arrantza-jarduerak hobetzeko. Era berean, foro neutral gisa aritzen da, herrialde guztiak (garatuak eta garabidean daudenak) hitzarmenak negoziatzeko eta politikak eztabaidatzeko biltzen direnean. Sorreratik beretik, arreta berezia jarri du landa-eremuetan, eremu horietan bizi baita munduko biztanle pobreen eta gosea pasatzen dutenen %70.

[www.fao.org]

NAZIOARTEKO MONETA FUNTSA (NMF): Alde anitzeko erakunde hau 1945ean sortu zen, nazioarteko moneta- eta finantza-sistemaren egonkortasuna zaintzeko (nazio-moneten arteko nazioarteko ordainketen eta truke-neurrien sistema da, herrialdeen arteko merkataritza egingarri bihurtuko duena). 184 herrialdek parte hartzen dute. Hauek dira NMFren jardueren helburuak: nazioarteko moneta-lankidetzaren sustatzea; nazioarteko merkataritzaren hedadura eta hazkunde orekatuari bide ematea; kanbioen egonkortasuna sustatzea; alde anitzeko ordainketen sistema ezartzen laguntzea; erakundearen baliabideak ordainketa-balantzetan zailtasunak dituzten estatu kideen esku jartzea –berme egokiekina–. Helburu horiek lortzeko, hiru mekanismo nagusi erabiltzen ditu NMFk: ikuskapena, laguntza teknikoa eta finantza-laguntza.

[www.imf.org/external/np/exr/facts/spa/glances.htm]

NBE: Nazio Batuen Erakundea. 1945ean sortu zen gobernu arteko erakundea da, eta helburu hauek ditu: nazioarteko bakeari eta segurtasunari eustea eta munduko herri guztietan giza eskubideak eta garapen jasangarria sustatzea –nazioarteko lankidetzarako eta alde anitzeko lankidetzarako mekanismoen bidez–. 192 estatu kide ditu.

*Hegoa (2006) “Emakumeak munduko biltzarretan.
Tokian tokikotik globalera”.*

[www.un.org/spanish]

LANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEA (LANE): Nazio Batuen erakunde espezializatua da, eta nazioartean onartutako giza eskubideak eta lan-eskubideak eta justizia soziala sustatzea du helburu. 1919an sortu zen, eta Versaillesko Tratatutik oraindik ere irauten duen emaitza garrantzitsu bakarra da; tratatu horretatik sortu zen Nazioen Elkarte. 1946an, Nazio Batuen lehen erakunde espezializatua bihurtu zen. LANEk:

1. Laneko nazioarteko arauak egin eta hitzarmen edo gomendio moduan ematen ditu (arau horietan, oinarritzko lan-eskubideen gutxieneko baldintzak zehazten dira); esaterako, sindikatu-askatasuna, sindikatuko kide izateko eskubidea, negoziazio kolektiborako eskubidea, bortxazko lana ezeztatzea, aukera- eta tratu-berdintasuna eta abar.
2. Lan-eremuko hainbat arlotarako laguntza teknikoa ematen du; adibidez, prestakuntzarako, enplegu-politikarako, kooperatibetarako, gizarte-segurantzarako, laneko segurtasunerako eta osasunerako eta abar.
3. Enplegu-emaileen eta langileen erakunde independenteak garatzea sustatzen du, eta, horretarako, prestakuntza eta aholkularitza teknikoa ematen ditu.

Nazio Batuen sistemaren barruan, LANE da hiruko egitura duen erakunde bakarra; langileek, enplegu-emaileek eta gobernuek maila berean parte hartzen dute erakundean, administrazio-organoen lanetan.

[www.ilo.org/public/spanish/about/index.htm]

GUTXIEN AURRERATUTAKO HERRIALDEAK: Nazio Batuen Erakundeak izen hori ematen die egoera honetan dauden herrialdeei: 800 dolar amerikar baino gutxiagoko *per capita* BPGa dutenei; jaiotzean duten bizi-itxaropena, *per capita* kaloria-kontsumoa, eskolaratzea eta helduen alfabetatzea aztertuta giza baliabide

urriak dituzten herrialdeei; ekonomiaren dibertsifikazio-maila baxua duten herrialdeei (hori adierazle konposatu baten arabera neurtzen da, eta hau du oinarrian: BPGko manufaktura-industria, industrian lan egiten duen biztanleria aktiboaren ehunekoa, merkataritzaren urteko *per capita* energia-kontsumoa eta esportazioen kontzentrazio-indizea). Gutxien aurreratutako herrialdeen lehen zerrenda 1971n onartu zen. Egun, 49 herrialde daude zerrenda horretan, eta 600 milioi pertsona baino gehiago bizi dira herrialde horietan.

[www.cinu.org.mx/temas/desarrollo/dessocial/ldc/paisesmadel.htm]

ERABATEKO POBREZI: Elikadurako, osasuneko, hezkuntzako, ingurumeneko eta norberaren bizitzari eragiten dioten erabakietan parte hartzeko oinarritzko mailak lortzeko ezintasuna.

[<http://es.wikipedia.org>][<http://web.worldbank.org>]

POBREZIA ERLATIBOA: Elikadurarekin, etxebizitzarekin, osasunarekin, hezkuntzarekin edo garraioarekin zerikusia duten oinarritzko behar guztiei edo behar horien zati bati aurre egiteko beharrezko diru-sarrerarik ez duten banakoen edo familien egoera. Munduko Bankuak egoera bat pobrezia erlatibokotzat hartzen du *per capita* BPGa 1.025 dolar amerikarretik beherakoa denean (2006ko uztailak 1).

[<http://es.wikipedia.org>][<http://web.worldbank.org>]

MUTURREKO POBREZIA: Banakoek edo familiek bizitzeko beharrezkoa den kopuru kalorikoari aurre egin ezin diotenean izaten den egoera. Egunean dolar batekin baino gutxiagorekin bizitzea da hori.

[<http://es.wikipedia.org>][<http://web.worldbank.org>]

ELIKAGAIEN SEGURTASUNA: Uneoro bitzita aktiboa eta osasuntsua izateko elikadura-beharrak eta elikadura-lehentasanak asetzeko adina elikagai ez-kaltegarri eta elikagarri lortzeko baliabide materialak eta ekonomikoak dituzten pertsonen egoerari egiten dio erreferentzia. 1996an, Elikadurari buruzko Munduko Goi-bilera sustatu zuen Erroman FAOk; pertsona orok elikagaien segurtasunerako eskubidea duela berretsi zuten nazioarteko komunitateko estatuburuek.

[www.fao.org/spfs/index_es.asp]